

# ***Clovis* pastoralaren eskuizkribuak**

ANE LOIDI GARITANO<sup>1</sup>

Euskaltzaindiaren Hiztegegintzako lankidea

Lan honen helburua gaur ezagutzen ditugun Clovis erregeari buruzko Zuberoako pastoralen<sup>2</sup> eskuizkribuen ikuspegi ahalik eta osoena ematea da. Guztira, XVIII eta XIX. mendeetako hamar eskuizkribu dira hemen aipatuko ditugunak; behean ikusiko dugunez, lau dira eskuizkribu nagusiak, eta gainerakoak horietatik egindako kopiak eta itzulpen bat dira. Paris, Bordele, Baiona eta Donostiako liburutegietan eta Mauleko bilduma pribatu batean daude gaur ezagutzen ditugun zortzi aleak eta horiei buruz jardungo dugu batez ere. Txosten honen helburua da dagoena deskribatzea, aurrerago egin litekeen edizio kritiko oso baten oinarria jartzea eta edizio horretarako ere baliagarri izan litekeen stemma ahalik eta osoena ematea. G. Hérellek (1928, 124-128) egin zuen eskuizkribuen deskriptiotik abiatuz, batzuen eta besteen arteko loturak argitzen saiatuko gara.

## ***Clovis*: trajeria ezaguna**

Zuberoako pastoral zaharrez zerbait irakurri duen edozeinentzat trajeria batzuk ezagunago dira beste batzuk baino. Nahiko buztan luzea ekarri dute *Saint Jacques* eta *Jeanne d'Arc* pastoralen eskuizkribuen datek,<sup>3</sup> esaterako, bai-

---

<sup>1</sup> Mila esker Gidor Bilbaori eta Beñat Oyharçabali lan honi egindako ohar aberasgarriengatik.

<sup>2</sup> Lan honetan *pastoral* eta *trajeria* izendapenen arteko bereizketarik ez dugu egingo. Berdin erabiliko ditugu bata zein bestea, inolako bereizketarik gabe.

<sup>3</sup> Gure ustez ondo frogatua utzi du B. Oyharçabalek (2004, 199-201) 1834 dela *Saint Jacques* pastoralaren eskuizkribuan irakur daitekeen data bakarra eta K. Seguiolak (2002) ere argi erakutsi du *Jeanne d'Arc* pasterala 1793ko ur marka daraman paperean idatzia dagoela eta, beraz, testua ezin izan litekeela ez 1712koa ez 1723koa. Ez dugu horretaz Oyharçabalek eta Seguiolak esandakoa egokiago esaterik lortuko eta, beraz, kontu hori itxia dago guretzat. Aipatutako artikulu argigarri horien ondoren ere Urkizuk (2007, 25, 26) honela aipatzen ditu bi

na agian bi horiei ere aurrea hartzen die gure oraingo sujetak. Buchonek (1839) Jean Pierre Saffores Atarratzeko zapatari eta pastorgilearen etxean, beste hirurogeita hamar bat eskuizkriburen artean, *Clovis* pastoralaren 1500eko eskuizkribu bat ikusi zuela aipatzen du eta berak erosi zuela. Asko idatzi dute horren inguruan ondorengo ikerlariak; Badék (1843) aipatzen du, Hérellek (1926) artikulu berezi bat eskaini zion<sup>4</sup> eta azken aldian, datu horren aldeko eta kontrako iritzia eman dutenak, P. Urkizu (2007) eta B. Oyharçabal (2004) izan dira. Ez dakigu guk ere benetan zer adierazi nahi ote zuen Buchonek datu horrekin edo zertarako eman zuen horrela, baina arrazonomenduetan bat gatoz erabat Oyharçabalekin, hau da, XVIII. mendera arte pastorelei buruzko ezelako lekukotasun fidagarriak ez izanda nekez pentsa dezakegula mende eta erdi lehenago horrelako lan baten lekukotasun isolatu bat izan litekeenik.<sup>5</sup>

Kontuak kontu, gure ustez Oyharçabalek esandakoetatik urrutiago eramango ez gaituzten jardunetan sartu gabe, pastoral honek izan duen oihartzuna islatu nahi genuen bakarrik. Goikoaren moduko eztabaidetan sartu gabe Fr. Michelek ere lan bat baino gehiagotan aipatu zuen *Clovis* pasterala. Lehenengo, lehen peredikuko zortzi ahapaldi kopiatu zituen (1847, II 256 oin-oharra); geroago, A. Oihenarten poemei urte berean egindako edizioaren hitzaurrean (LXIX. orrialdeko oin-oharra), berak duen eskuizkribuan azaltzen diren pertsonaia eta aktoreen zerrenda ematen digu; eta azkenik, *Le Pays Basque* lan aipagarrian, pastorelei eskainitako atalean, ia hamar orrialde eskaintzen dizkio *Clovisi* (1857, 66-75). Orrialde horietan, lehen peredikuan kontatzen dena ematen digu frantsesez (tartean bertako hiru ahapaldiren itzulpen zehatzagoa) eta testu osoaren laburpena egiten digu gainera, testuko sei aha-

---

eskuizkribu horiek: “El que aparezca la fecha de 1634 *perfectamente clara* [azpimarra gurea da] en la pastoral de *Saint Jacques*” eta “Tras la pastoral de *Saint Jacques*, vendrían en orden cronológico la de *Jeanne d’Arc* [...] ya que según nota de Georges Lacombe es de 1712, y es *le plus ancien connu*, el más antiguo conocido”. Bigarren aipu honen ondoren K. Seguirolaren artikulua aipatzen du baina, hala ere, ez du lerro bat gorago esandakoa ezetzatzen.

<sup>4</sup> Hérellek zalantzak erakutsi baldin bazituen ere, eta Buchonen ondorengoen artean galdetuta eskuizkribuaren bila egindako ahaleginek emaitza onik eman ez bazuten ere, badirudi sinesten zituela artxibaliariaren hitzak eta, froga handiegirik gabe, benetan garai hartako eskuizkributzat zuela Buchonek aipatutakoa.

<sup>5</sup> Urkizuk (2007, 22), Oyharçabalen arrazonomenduen kontrako inolako frogarik gabe, eta aldeko froga bakarizat artxibaliariaren hitzen fidagarritasuna aipatzen duela, benetan eskuizkribu hori izan zela aditzera ematen du: “Como es difícil de dudar de la competencia paleográfica del inspector general de los Archivos y Bibliotecas de Francia que publicó *La collection de chroniques nationales et françaises du xve et xvième siècle* (1824-1829) no nos queda sino lamentar la pérdida del manuscrito.”

paldi kopiatuaz. Aipatu ditugun liburuen datak ikusita, beraz, zuzenean euskaraz kopiatuak zati labur bi bakarrik badira ere, esan dezakegu, Vinsonek 1891an Antiokiako San Julianen pastorala osorik argitaratu aurretik, *Clovis* pastorala izan zela moldeko letretan azaltzen lehenengoa, liburu berean 87. orrialdean argitaratu ziren *Napoleon* pastoralaren bi ahapaldiekin batera.<sup>6</sup>

Hérelle ohartu zen Fr. Michelek erabili zuen Clovisen alea ez zela berak ondoen ezagutzen zuen Bordeleko eskuizkribuaren erabat berdina, Fr. Michelek egiten zuen kontaketa, hasieran Bordelekoarekin bat bazatorren ere, berak ezagutzen zuena baino luzeagoa baitzen.<sup>7</sup> Zuzen zebilen Hérelle, ez zen Bordeleko eskuizkribua Fr. Michelek erabili zuena; bai, ordea, berak (1928, 125) aipatzen duen aleetako bat: Félix Larrieu mediku zuberotarraren bildumako alea, hain zuzen ere. Garbi dago Hérellek esku pribatuetan gordetzen ziren eskuizkribuen berri, gehienetan, jabeek emandako azalpenei esker zekiela bakarrik, baina berak ez zituela ikusi.<sup>8</sup> Liburutegietan zeudenak (horietako batzuk berak egindako emaitzak dira) ikusiak eta aztertuak zituen, eta askotan, Léopold Irigaray zuberotarraren laguntzari esker, ulertu eta interpretatuak ere bai. Baina argi dago ez zuela ikusi *Clovis* pastoralarentzat berak aipatzen dituen eskuizkribuen arteko bat: Larrieu medikuaren alea. Beherago ikusiko dugunez, eskuizkribu horretan dago Fr. Michelek (1847, II LXIX) argitaratu zuen pertsonaia eta aktoreen zerrenda, Hérellek berak ere behin baino gehiagotan aipatu duena.<sup>9</sup> Beraz, Larrieuren bilduman zegoen 1799ko eskuizkribuaren bukaerako aktoreen zerrenda ikuste hutsarekin ohartuko zen ale hori zela Fr. Michelek eskuartearen erabili zuena.

Orain badakigu, beraz, zein zen Fr. Michelek *Clovis* pastoralaren berri emateko erabili zuen alea eta baita non den ere. Gaur egun Mauleko Marie-Laure Peyrot anderearen etxean dira Larrieu medikuaren bilduma osatzen zuten liburu eta eskuizkribuetako batzuk eta horien artean da guri dagokigun

<sup>6</sup> Handik aurrera ere eskuizkribuetan daude Zuberoako pastoral zahar gehienak, xx. mende hasieran A. Leonek (1909) eta Saroihandyk egindako zatikako argitalpenak eta azken urteetako edizio bakanak salbu (azken urteetako edizioetarako ik. bibliografia).

<sup>7</sup> "Ici [Bordeleko eskuizkribuaren laburpenaren ondoren dator oharra] s'arrête le texte abrégé du ms. de Bordeaux. Le ms. analysé par Francisque Michel contenait en outre ce qui suit: [...]" Hérelle 1928, 127.

<sup>8</sup> Honela dio Hérellek berak: "Pour ceux qui n'ont point passé entre nos mains, nous avons été obligé de nous contenter des renseignements que les détenteurs des cahiers ont eu l'obligeance de nous fournir. Dans un petit nombre de cas, nous n'avons pu obtenir aucun renseignement" (Hérelle 1928, 9).

<sup>9</sup> Ikus Hérelle 1910, 16-17 eta 1923, 35.

hau ere.<sup>10</sup> Eskuizkribua ikusi eta berehala konturatu ginen ale horixe zela Fr. Michelek erabili zuena, gu baino azkarragoa izan zen de Souhy jaunari esker. Eskuizkribuari, koadernatzerakoan, aurrean erantsita geratu zaizkion orrietako batean honako oharra idatzi zuen: “Cet exemplaire me vient du fond Larrieu de Montfort l’Amaury. En 1847 il appartenait à Francisque Michel (voir preface de l’édition des proverbes basques d’Oihenart p. LXIX)”. Ezagutzen zuen, beraz, Oihenarten olerkien hitzaurreko Fr. Michelen aipua eta jabetu zen berak eskuartearen zuen eskuizkributik kopiatua zela.<sup>11</sup> Aipatutako orrialde horretatik aurrera egin eta testua irakurtzen hasi ginenean,<sup>12</sup> berriz, ohartu ginen ordurako ezagutzen genuen Baionako Euskal Erakustokiko liburutegian gordetzen den Cl. d’Andurainen bildumako eskuizkribuaren “berdin-berdina” zela, beherago ikusiko dugunez. Bagenekien, beraz, nondik kopiatua behar zuen izan Hérellek XIX. mende bukaerakotzat duen eskuizkribuak.<sup>13</sup> Ordurako, aztertuak genituen gaur ezagutzen ditugun beste eskuizkribuak ere, eta eginak genituen batzuen eta besteen arteko loturak.

Duen historia dela eta guretzat *Clovisen* eskuizkribuetan harribitxi den hori, Hérellek ondoen ezagutzen zuena zelako guztietan ezagunena egin den Bordelekoa eta gaur ezagutzen ditugun gainerako guztiak non dauden, noizkoak diren eta elkarren artean dituzten loturak azaltzen saiatuko gara hurrengo lerroetan.

---

<sup>10</sup> B. Oyharçabalen doktore tesi lan bikaina berrirakurtzen ari ginela, erdi kasualitatez konturatu ginen Larrieuren liburutegiko hainbat ale Pierre de Souhy mauletarraren etxean zirela: “La bibliothèque du Docteur Larrieu appartient pour l’essentiel aujourd’hui à M. de Souhy” (Oyharçabal 1991, 16). Pierre de Souhyk, Peyrot anderearen aita zenak, 1941ean F. Larrieu mediku euskaltzalea hil zela jakin zuenean, hura bizi zen Paris inguruko Montfort l’Amauryra jo zuen haren liburutegia ahal zuen neurrian behintzat salbatzera. Alabak kontatu zigunez, ez zen lan erraza izan de Souhy jaunarena, Bigarren Mundu Gerra bete-betearen baitzen, baina ahal izan zituen guztiak Maulera ekarri zituen.

<sup>11</sup> Beherago ikusiko dugunez, Hérellek egiten duen deskripzioan eskuizkribu hori koadernatu gabe dagoela aipatzen du. Larrieuk berak geroago edo de Souhy jaunak koadernatuko zuten. Goian aipatu dugun Fr. Michelen aleari buruzko oharraz gain, orrialde berean, goienean, Hérellek eskuizkribu honentzat ematen duen deskripzioa kopiatzen du de Souhy jaunak, eta, “cahier sans couverture” kopiatu ondoren, “aujourd’hui [hui] relié” gehitu du kako artean.

<sup>12</sup> Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiogu Peyrot andereari, 2004ko ekainean, eskuizkribua ikusteko eta argazkiak ateratzeko Gidor Bilbao irakasleari eta bioi eman zizkigun erraztasunengatik.

<sup>13</sup> Larrieuren bildumako alea ezagutu aurretik ere bagenuen susmoa Cl. d’Andurainen aleak eta Fr. Michelenak loturaren bat izan behar zutena, gaur Baionako Erakustokiko Liburutegian dagoen aleak, aktoreen zerrendarik ez baldin badakar ere, 1799ko data baitakar jatorritzotik kopiatuta. Fr. Michelek aipatzen zuen data zen, beraz, baina ezagutzen genuen eskuizkribua XIX. mendekoa zen. Larrieu bildumako alea azaldu zenean erraza izan zen lotura.

## Eskuizkribuak banan-banan

Gaur egun ezagutzen ditugun *Clovis* pastoralaren eskuizkribu guztiak Hérellek (1928, 124-128) aipatu zituen jada. Ikusiko dugunez, Hérellek gaur ezagutzen ditugunak eta besteren bat ere aipatzen du. Eskuizkribuen deskripzioa banan-banan egiteko, beraz, hark dakarrena kopiatuko dugu lehenengo, eta ondoren guk esateko duguna erantsiko dugu; gaur gordetzen ez ditugunetatik hasiko gara, horiek baitira esateko gutxien dutenak eta, gero, banan-banan, elkarrekiko loturak eginaz aipatuko ditugu beste guztiak. Hérelleren testua kopiatu dugun lekuan gure izendapena tartekatuko dugu kako artean (ikus beherago stemma).

J. Héguiaphal [G]. Cahier cartonné; papier réglé de moyen format. Copie exécutée en 1899 par L. Irigaray d'après le ms. de V. Stempf.

Ez dakigu ondo gaur egun non diren errejent ugari eman duen familia honen eskuizkribuak. 1980ko hamarkadan, haren oinordekoen etxean izan ziren Gidor Bilbao eta Charles Videgain ikertzaileak zenbait pastoralen eskuizkribuak mikrofilmazten, eta orduan ikusi ahal izan zuten eskuizkribuen zerrendan (22 izenburu zahar eta 12 berri) ez zegoen *Clovis* izenekorik (bai, ordea, *Saint Julien d'Antioche*). Dena den, Hérellek esaten digunez, L. Irigarayk Stempfen aletik egindako kopia da; beraz, Pariseko liburutegian gordetzen den eskuizkribuaren oso antzekoa behar zuen izan.

V. Stempf [E]. Cahier sans couverture; papier pelure, 41 pages. Copie faite d'après le ms. de Bordeaux.

Eskuizkribu honen berririk ere ez dugu gaur. Hérellek (1928) hiru pastoraletan aipatzen ditu Stempfen kopiak: Clovisenean, Antiokiako San Julianean (aurrerantzean *SJ*) eta *La Jérusalem délivrée* izenekoan. Vinsonek, *SJ* pastoralara argitaratzeko, V. Stempfek Bordeleko liburutegiko aleari egindako kopia baliatu zuen. Beherago ikusiko dugunez, Bordeleko eskuizkribuak *Clovis* pastoralara jasotzen du lehenengo 16 orrietan eta *SJ* 17.etik 51.era. Baliteke, beraz, Vinsonek gorde izana trajeria bien kopiak, baina gaur Lacomberen liburutegiarekin batera gordetzen diren Vinsonen paperen artean ez dago horrelako alerik.<sup>14</sup> Goiko atalean esan dugunez (ikus hurrengo atalean Pariseko

<sup>14</sup> Vinsonen liburutegi eta artxiboaren zati bat Lacombek erosi zuen eta gaur egun Olaso Dorrea Sorrerakundea da Lacomberen artxiboaren jabea. Artxibo horren kopia digitalizatu bat

aleari buruz esango duguna) eskuizkribu hau erabili bide zuen Irigarayk ere bere kopiak egiteko.

Paris n° 133 [F]. Demi reliure en chagrin; papier très fort, 290 sur 210 mm.; 63 feuillets à une colonne. Copie exécuté en 1899 par L. Irigaray, d'après le ms. de Bordeaux.

Pariseko Liburutegi Nazionalan (aurrerantzean BNP) gordetzen da gaur egun ere eskuizkribu hau, *Celt et Basque* izeneko eskuizkribuen funtsean, 133. zenbakiarekin. Hérelleren aipuan ikusi dugun bezala zutabe bakarrean idatzita dago eta, 1900eko kopia izaki, egoera onean; letra garbi eta irakurterrazez idatzia da.<sup>15</sup> Hérellek 63 orri aipatzen ditu; guk, oraingoz, Gasteizen Euskal Herriko Unibertsitateko Koldo Mitxelena liburutegian dagoen mikrofilmaren bitartez bakarrik ikusi ahal izan dugu eta bertan idatzitako azken orrialdea 61. orriaren atzealdea da. Hain zuzen ere azkenengo orrialde horretan irakurri duguna aipatu nahiko genuke hemen. Hérelleren aipuan “Copie exécuté en 1899 par L. Irigaray, d'après le ms. de Bordeaux” jartzen baldin badu ere, badirudi eskuizkribu hau egiterakoan V. Stempfek egindako kopia erabili zuela Léopold Irigarayk. Honela dio azken orrialdeko oharra (BNP 133, 61v):

La présente pastorale intitulée *Clovis* a été copiée pour Mr. Georges Hérelle, correspondant honoraire du Ministère de l'Instruction Publique, sur une autre copie appartenant à Mr. V. Stempf, laquelle a été elle-même prise sur un manuscrit de la Bibliothèque de Bordeaux, par moi soussigné, Léopold Irigaray de Licq-Athère. Tardets, le 15 avril 1900.

Goian ikusi dugunez, Héguiphalen bildumako alea ere Irigarayk kopiatua da; beraz, badirudi eskuizkribu honen bi kopia behintzat egin zituela Hérelleren kolaboratzaileak: orain aipatzen ari garen hau Hérellerentzat<sup>16</sup> eta bestea Héguiphalentzat.

---

bada Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan eta handik jakin ahal izan dugu bilduma horretan ez dagoela bila genbiltzan eskuizkribua.

<sup>15</sup> Kopia aski modernoa eta bigarren mailakoa izanik garrantzi gutxiakoa dela pentsa liteke, baina eskuizkribu honen balioa ere ez da txikia. Jatorrizkoa XVIII. mendekoa izanik eta kopia ia XX. mendekoa, badu testu honek hizkuntzazko aldaerez eta, oro har, zubereraren eboluzioaz, erakustekorik. Ikusi ahal izan dugunagatik kopia ez da jatorrizko testuaren erabat berdina eta adierazgarria izan liteke alor horretan.

<sup>16</sup> BNPen dagoen ale hau Hérellek emandakoa da; hasiera-hasieran, Hérelleren sinadura eta guzti, honako oharra du eskuizkribuak: “Offert à la Bibliothèque Nationale par le soussigné: G. Hérelle”.

Bordeleko eskuizkributik —esan bezala, Stempfen kopia bitarteko dela— *Clovis* pastoralari dagozkion 16 orrietatik kopiatutakoaz gain, baditu eskuizkribu honek beste zortzi ahapaldi ere. Iturritzat hartutako eskuizkribuak<sup>17</sup> lehen perediku bakarra du bi pastoralentzat eta ez du azken peredikurik. Perediku horrek egiten du, hain zuzen ere, pastoral bien arteko lotura. Berez erabat beregain diren bi pastoral dira, baina 1770eko eskuizkribuan kopiatutakoak elkarren jarraian emateko prestatu ziren eta horregatik *SJ* pastoralari dagokion lehen peredikuan badira Clovisi dagozkion ahapaldi batzuk. Ahapaldi horiek dira hain justu ere L. Irigarayk bere kopiaren lehenengo orrialdeetan kopiatutako zortziak.<sup>18</sup> Goian aipatu dugun idatzitako azken orrialdearen aurrekoan, 61. orriaren aurrealdean, pastoreko pertsonaien zerrenda dator. Bordeleko eskuizkribuan, zerrenda hori *SJ* pastorekoarekin batera dator, haren jarraian. Kasu honetan *Clovisi* dagozkionak bakarrik kopiatu dira, bakoitzari dagokion ahapaldi kopurua ondoan dutela; guztira 17 pertsonaia.<sup>19</sup> Ahapaldiak banaka zebakitu gabe daude, baina bukaeran “Total 580 vers” dio, jatorrizkotik kopiatuta.

Bayonne n° 120 [J]. Cahier cartonné. Traduction française de *Clovis*, faite par Léopold Irigaray sur le ms. de Bordeaux.

Nahita jarri dugu eskuizkribu honen deskripzioa Pariseko alearen ondoren. Eskuizkribu honek jasotzen duena L. Irigarayk egindako *Clovis* pastoralaren frantsesezko itzulpena da. Guztira zebakitutako 90 orri dira, aurrean zebakitu gabeko beste bi orri dituela. Honela dio lehenengo orrian:

Traduction de la pastorale de *Clovis*. Traduction faite par Léopold Irigaray. mss. 3 de Bordeaux (texte abrégé). À la fois, quelques fragments de *Jeanne d'Arc*.

Eskuizkribua irekita, eskuineko orrialdeek Bordeleko eskuizkribuaren itzulpena dakarte, zutabe bakarrean, ahapaldiak bina lerrotan banatuta; ezke-

<sup>17</sup> Ikus beherago “Bordeaux 3” eskuizkribua.

<sup>18</sup> Hirugarren orrian, “Prologue” izenburuaren azpian, honela idatzi du Irigarayk: “(Observations). La pastorale de *Clovis* devait être jouée après celle de *St. Julien*, quoique les 16 feuillets où elle se trouve dans le manuscrit n° 3 de Bordeaux, précèdent le *St Julien*. Elle n’avait donc pas de prologue spécial. Mais voici le passage du prologue de *Saint Julien* où est aussi analysé aussi [sic] le sujet de *Clovis*”.

<sup>19</sup> Zerrendan bikoiztutako pertsonaia falta dira. Alegia, aktore berak pertsonaia bat baino gehiago jokatu behar duenean, elkarren ondoan aipatzen dira pertsonaia guztiak. Kasu honetan, baina, Bordeleko eskuizkribuan aipatzen diren “bikoitz” guztiak *SJ* pastoralari dagozkie, eta horregatik ez ditu Irigarayk zerrendan sartu.

rreko orrialdeetan, berriz, oharrak, iruzkinak eta laburpentxoak datoz tinta gorritz idatzita. Bukaeran, BNPko aleak dakarren moduan, “Total 580 vers” dio, eta, ahapaldi kopuruaren ondoren: “Tardets, le 20 juillet 1900. Irigaray”. Azken-azkenengo orrialdean pertsonaien zerrenda dator, BNPko alekoaren berdin-berdina.<sup>20</sup>

J. de Urquijo [D]. Cahier sans couverture; 1646 versets. Ex-libris daté: J.-P Busson, 1858.

Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian gordetzen da Julio Urkixo hizkuntzalari handiaren liburutegia, eta bilduma horretan dago gaur egun ere 1858ko data daraman eskuizkribua. Nahiko egoera onean dago oro har, baina, jositako orri nagusiez gain, han-hemen tartean erantsitako orritxo ugariz osatua da.

Alde batetik, lehen eta azken peredikua barne dituela, pastoralaren testu nagusia jasotzen duten orrialdeak daude. Lehenengo bi orrialdeak zembakitu gabe daude, baina, hortik aurrera, 64.era arte orrialdeka zembakitua dago eskuizkribua. Lehen peredikuak zembakitu gabeko bi orrialdeak eta zembakitutako lehenengo biak hartzen ditu (guztira 75 ahapaldi). Trajeriaren testu nagusia zembakitutako 3.orrialdetik 63.erako orrialdeetan dago; orrialde horretako lehenengo zutabearen amaieran bukatzen da “fini” batekin. Azken peredikuak guztira 25 ahapaldi ditu, 63. eta 64. orrialdeetan. Azkenengo ahapaldiaren ondoren dator ex librisa: “Fait par Jn. Pierre Busson. Tardets le 10 février 1858. Composé de 1645 vers”.<sup>21</sup>

Eskuizkribua osatzen duten plegu nagusiez gain, baditu, esan bezala, erantsitako hainbat orritxo ere (16 guztira). Testu nagusian, tarteka, buruz behera

---

<sup>20</sup> *Clovis* pastoralaren itzulpena dakarten orrien ondoren beste pasarte labur batzuk daude batera koadernatuta. *Jeanne d'Arc* pastoralaren lehen eta azken peredikuen hainbat ahapaldi dira eta Hérellek pastoral horri dagokion zatian (1928, 134) aipatzen ez dituenetz, egokia iruditu zaigu hona ekartzea: lehenengo bi orrialdeetan *La pucelle d'Orleansen* lehen peredikuaeren zortzi ahapaldi, hurrengo lau orrialdeetan *Jeanne d'Arc* pastoralaren azken peredikuaeren 16 ahapaldi, eta, azkenengo hiru orrialdeetan, berriz ere *La pucelle d'Orleansen* zortzi ahapaldiak (ondoan gorritz idatzita “recopié par Leopold Irigaray” dio).

<sup>21</sup> 1400 jartzen du azpian eta gainetik zuzenduaz idatzita dago 1645. Bussoni buruz oraingo ez dakigu Vinsonek eta Hérellek aipatzen dutena besterik. Pastoralen egile (“auteurs”) edo moldatzaileez (“arrangeurs”) mintzatzean 1875ean hil zela Busson aipatzen du lehenengoak (1883, 20): “J.P. Busson de Tardets (mort en 1875)” eta bigarrenak, berriz, pastorgileen zerrenda batean, zer eta noiz eman zuen: “Busson fit représenter *Nabuchodonosor* à Tardets en 1857 et *Clovis*, même lieu, en 1858” (Hérelle 1923, 164).



jarritako *V* baten antzeko markak daude, erantsitako orritxo horietara bidaltzen gaituztenak. Orritxo horietan, frantsesezko ohar batzuen bitartez, aditzera ematen da bertako ahapaldiak testuaren zein zatitan eta nola txertatu behar diren.<sup>22</sup> Erantsi beharreko orritxo horietan daudenak eta testu nagusikoak batuta 1419 ahapaldi zenbakitu ditugu guk gure transkripzioan; lehen eta azken peredikukoekin batuta, 1519 ateratzen zaizkigu, eskuizkribuan bertan ematen denarekin bat ez datorren zenbakia, beraz.

Aipatutakoaz gainera, 1etik 4ra zenbakitutako bi orri ditu eskuizkribuak testu nagusiaren aurretik. Lehenengoa, batez ere, aski hondatua dago, berau baita, beste azalik ezean, eskuizkribuaren aurreko azala. Orrialde horietan sataneriak datoz bi zutabetan idatzita, eskuizkribu honetan nahiz besteren batean txerta litezkeenak.<sup>23</sup> Guztira 66 ahapaldi zenbatu ditugu sataneria horietan. Laugarren orrialdearen bigarren zutabearen barrenean, berriz, *Clovis* pastoralara jokatzeko beharrezko den eszenako tresneriaren zerrenda dator.<sup>24</sup> Testu nagusian bezala, bi orri hauekin batera ere bada erantsitako beste orri bat, hiru aldiz errepikatzen den bi ahapaldiko Jainkoaren gorazarrezko kanta edo otoitz bat jasotzen duena.<sup>25</sup>

Bayonne n° 51 [I]. Fragment de 2 feuillets, 320 sur 215 mm. Liste des rôles et indications pour la mise en scène.

Baionako Udal Liburutegian (aurrerantzean BMBa) zenbaki hori daramana elkarrekin koadernaturako hainbat eskuizkribu dituen liburuiki bat da. Guztira zazpi pasarte dira, Hérellek sinaturiko hasierako orri batean aipatzen den bezala:

<sup>22</sup> Hona, adibidez, 17. orrialdean txertatu beharreko pasarte batek dakarren oharra: "Augmentation de Nicete et Godolene. Faire parler Niceta après que Godolene aura fini de parler et avant la bataille du page 17."

<sup>23</sup> Eskuizkribuak berak baditu, bestela ere, satanei dagozkien ahapaldiak bakoitza bere lekuan txertatuak. Horregatik diogu ez direla ezinbestean pastoral honetarako idatziak. Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian, eskuizkribu honen digitalizazioan, ez dira orrialde horien argazkiak sartu.

<sup>24</sup> Inolako oharrik gabe dator zerrenda; ez du berariaz esaten *Clovis* pastoralerako denik, baina aipatzen diren elementuak beharrezkoak dira hurrengo orrialdeetan datorren testua egoki jokatzeko. Besteak beste "cintura eta khatia Remiren estecatceco" aipatzen da: *Clovis* bataiatu zuen Reimseko apezpikua zen Remy, pastoreko pertsonaien artean dagoena.

<sup>25</sup> Honela dio bi ahapaldiko kantuak: *Adoratcen çutugu, aita, / Trinitateko Gincoua, / erre-guen erre-guia eta / ispiritu divinoua. // Khiristieg oroq lurrian / çutie adoratcen / eta ber guisan aingurieq / celietan ouhouratcen.*

I. Rôle de satans dans *Charlemagne*, II. Liste des acteurs de *Clovis*, III. Fragments de *St. Jacques* (mss. B), IV. Prologues joints de *Nabuchodonosor* et d'*Astiage*, V. Fragment de *Napoleon*, VI. Sept rôles de *Saint Roch*, VII. Hymne final.

Guri dagokiguna, beraz, alde batetik, *Clovis* pastoralaren pertsonaien zerrenda eta berau jokatzeko oharrak jasotzen dituen zatia da. Goiko Hérelleren aipuan ikusi dugun bezala, bi orrialde besterik ez dira; eta, oraingoan ere, arrazoi jakin bategatik ezarri dugu atal hau Bussonen eskuizkribuaren ondoren. Bien arteko loturei buruzko aipurik inon aurkitu ez baldin badugu ere, ziur esan dezakegu bi orrialde horiek 1858ko eskuizkribua kopia zuenak berak idatzi zituela. Letrakera berdina da bietan eta, ez hori bakarrik, banan-banan zehazturik eta deskribaturik datoz 1858rako prestatutako trajeriaren jeltaldia. Alegia, beste aleen kontaketarekin ez bezala, eskuizkribu honetako hariarekin eta jeltaldiekin erabat bat dator zerrenda horretako testua. Beraz, Donostiako liburutegian gordetzen den eskuizkribua eta BMBa 51ko testu zatia elkarrengandik gaur daudena baino hurbilago izan ziren noizbait. Bigarrena lehenengoaren osagarri izan zen eta 1858ko otsailaren 10ean Atarratzen *Clovis* jokatu zenean errejentak arizaleak gidatzeko erabili zuen eskema da. Eskuizkribuan bertan bada Hérellen eskuz idatzitako ohar bat; honela dio oharrak:

C'est une liste des acteurs dans la pastorale de *Clovis*, avec l'indication de ce qu'il doivent faire. Les acteurs énumérés dans cette liste sont beaucoup plus nombreux qu'ils ne le sont dans mon manuscrit de *Clovis*; en effet, mon manuscrit a dû être abrégé pour une représentation double. Au surplus, Léopold Irigaray a entendu dire à Héguiaphal que la pastorale de *Clovis* était très longue.

Ikusten denez, beraz, Hérelle ez zen jabetu Bussonen aleari dagokion zerrenda dela bi orrialde horietakoa; izan ere ordurako Julio Urkixoren eskuetan zen 1858ko alea eta Hérellek ondoen ezagutzen zuena Bordeleko 1770eko alea zen.<sup>26</sup>

Bilduma bereko zazpigarren zatiak ere badu Bussonen eskuizkribuarekin harremanik. Hérelleren hitzekin kopia dugun "Hymne final" hori, goian 1858ko eskuizkribuari erantsia aipatu dugun otoitz hori bera da. Oraingo honetan ere otoitza hiru aldiz kopiatua dago, eskuinean gorri idatzitako Hé-

<sup>26</sup> Esan dugu gorago ere Hérellek ez zituela gehienetan bere begiz ikusi bilduma pribatuetan ziren eskuizkribuak.

relleren ohar bat eta beltzez itzulpena dituela.<sup>27</sup> Argigarria iruditu zaigu Héveleren oharra: bere ustez, kantua hiru aldiz koptatzea gero hiru zatitan ebaki ahal izateko da. Honela, zati bakoitza aktore bati emango zitzaion eta denek ikasteko aukera izango zen. Bussonen eskuizkribuan erantsita dagoen kopia hirukoitza ere, bilduma honetan jasotakoa bezala, horretarako prestatua izango zen. Edozein trajeriaren bukaeran kantatzeko moduko otoitza da, *Clovis* pastoralarekin lotura berezirik ez duena.

Musée Basque n° 20 [C]. Cahier sans couverture; papier vergé 305 sur 205 mm.; 19 feuillets à 2 colonnes. Noms de interlocuteurs eta didascalies écrits à l'encre rouge. Complet; environ 800 versets. XVIII<sup>e</sup> siècle.

Baionako Euskal Erakustokiko liburutegian (aurrerantzean BMBBa) Campan-Latsague deitu bildumakoa da eskuizkribu hau, 1926an, beste hainbatekin batera, Erakustokiko liburutegiari eginiko emaitza. Goian kopiatu dugun aipuan Hévellek XVIII. mendekoa dela dio, baina inolako dataren aipamenik ez du eskuizkribuak berak. Barruko orriak oro har nahiko egoera onean baldin badaude ere, lehenengo bi orriek eta azkenak zati bana falta dute; goienean eta gainerakoan ere bada pipiak egindako zulorik. Héveleren deskripzioan aipatzen den bezala, 19 orri ditu guztira (1etik 19ra orrika zenbakituta), eta tinta gorritz idatzita daude pertsonaien izenak eta testu oharra. Lehen eta azken peredikua (azken hori amaitu gabe) eta testu osoa jasotzen ditu eskuizkribuak; gure kontuen arabera: LP 77 ahapaldi, trajeria 692 ahapaldi eta AP 11 ahapaldi. Guztira, beraz, bi zutabetan idatzitako 780 ahapaldi. Dena dela, esan bezala, azken peredikua amaitu gabe dago. Ez dirudi eskuizkribuak orririk falta duenik, baina kopiaturik dagoen azken peredikuko azkenengo ahapaldiak bi lerro bakarrik ditu eta argi ikusten da kontaktaren laburpena ez dela horretan bukatzen.<sup>28</sup> Bi lerroko ahapaldi hori eta horren aurrekoa, gainera, marraz erdi ezabatuta daude.

Gehiegi aztertu ez baldin badugu ere, badu eskuizkribu honek beste be-reizgarri bat ere: errima bertsolerro bikoitietan bakarrik eman beharrean, badirudi bertsolerro guztietan egiten saiatzen dela, batzuetan oso pobrea izanik

<sup>27</sup> Emanaldiaren bukaeran Jainkoa laudatzeko kantatu ohi ziren horrelako otoitzak. Hévellek berak ere horixe aipatzen du kantuaren ondoan ezarritako oharrean: “C’est peut-être un chant *final*. Cela arrive souvent, on l’a fait à Licq lors qu’on a joué *Jean de Calais*. Ce chant (pour remercier Dieu) se chante avant le ‘dernier sermon’”.

<sup>28</sup> “Aurelianus ordian / jouaitera herabe cian”. Horrela bukatzen da eskuizkribua. Ikusten den bezala, ahapaldia bukatu gabe dago eta kontaktan ere oraindik Aurelianus ez da Agabundusengana joan Clotillisen eskua eskatzera; beraz, jokatutakoaren laburpena ez da bukatu.

ere. Hona, adibide modura, adierazgarri diren lehen peredikuko 7. eta 9. ahapaldiak:

Bata beçain erregue cen bestia,  
ceren beiccen by anajen phartia,  
bena Agabondusec eraguin desordria  
eta erho eracy bere anaia.

Clotillis ere han cen ordian  
bere aita amen presentcian,  
houra conservatu urhan cian  
bestiac hileracy cutienian.

Eskuizkribuarekin batera bada Hérelleren eskuz idatzitako ohar bat honako hau dioena: “Cette pièce n’a aucun rapport avec l’autre pastorale intitulée *L’Histoire de Clovis*”. Hérellek (1928, 128) eskuizkribu hau beste guztien-gandik bereizita aipatzen du; “Baptême de Clovis” izeneko atalean sartzen du eskuizkribu hau bereizi, eta “Histoire de Clovis” izenekoan besteak. Gai honi beheratxoago helduko diogu.

Bordeaux n° 3 [A]. Feuillet 1-16. Cahier sans couverture; papier vergé 255 sur 190 mm.; 16 feuillets à 2 colonnes. Rédaction abrégée. Complet; 580 versets comptés par le copiste. Copie daté de 1770 (À partir du f° 17 commence *St Julien d’Antioche*).

Bordeleko Udal liburutegian (aurrerantzean BMBo) 1695 zenbakia dararamaten eskuizkribuek osatzen dute Zuberoako pastoralen bilduma, eta bilduma horretan III zenbakia darama orain aipatuko dugun eskuizkribuak. Guztira bi zutabetara idatzitako 51 orri dira, orrika zenbakituak. Guzti horietatik lehenengo 16 orriak dira *Clovis* pastoralari dagozkionak<sup>29</sup> eta gainerako guztiak *Sji* dagozkio. *SJ* pastoralari dagokin zatian ez bezala, lehenengo 16 orrietan, zutabeka, ahapaldiak zenbatu ditu kopiatzaileak; orrialde bakoitzean, ezkerreko eta eskuinteko zutabeen azpian,<sup>30</sup> unean uneko ahapaldi kopuru osoa zehazten du. Dena dela, badirudi azken zenbaketa osoa ez dela zehatza; bukaeran “total 580 vers” dio 16. orriaren atzealdean, baina orrialde horretan hiru ahapaldi besterik ez

<sup>29</sup> XVIII. mendeko beste pastoral batzuen eskuizkribuekin batera argitaratu du P. Urkizuk zati hori (2007, 416-464).

<sup>30</sup> Hainbat orrialdetan zutabe biak batera zenbatu ditu, baina gehienetan zutabe bakoitzaren azpian zehazten du ordura arteko kopurua.

daude eta aurreko zenbaketan (aurreko orrialdearen barrenean) 567 dio. Guk guztira 567 ahapaldi kopiatu ditugu transkripzioan.<sup>31</sup>

Gorago ikusi dugun bezala, honen kopia zuzena zen Stempfek egindakoa, eta kopia haren kopia, berriz, Irigarayk egindakoak. Irigarayk egindako itzulpena ere eskuizkribu honetako testuarena da.

Eskuizkribu honek idatzita duen lehenengo orrialdean pertsonaien zerrenda eta bakoitzari dagokion ahapaldi kopurua dator: “Les compagnies, ou il seront aussy marqués les doubles emplois,<sup>32</sup> sont cy bas nomez et joint avec leurs autres parties”. Horren guztiaren azpian, zati bat falta duela,<sup>33</sup> eta, beraz, osorik irakurri ezin dela, dator ex librisa:

Simon Dalchurut  
[Charritte] de Bas[...]  
[...] janvier 1770.

Eskuizkribu honen kopiatzaile edo moldatzaileari buruz beste leku batean aritu garenez (ik. 2003-2004, 472-476) ez dugu hemen luze jardungo, baina aipatu bai aipatuko ditugu eskuizkribuan, Simon D’Alchurruitez gain, azaltzen diren beste izenak. 16. orrialdearen atzealdean, *Clovis* pastoralaren bukaeran, elkarren gainean idatzita datoz Simon D’Alchurru eta Etchebarne Bernard. Hau da, *Simon* utzi eta *D’Alchurru*-en gainean *Etchebarne* eta ondoren *Bernard* idatzi du azken honek. Urkizuk (2007) egin duen argitalpenean Bernard Etchebarne bakarrik aipatzen da, baina guri ez zaigu erabat zuzena iruditzen. Aurreko lanean aipatu genuen bezala, iruditzen zaigu Alchurruten kopiaren jabe egin zela Etchebarne. Eskuizkribu honetako 51. orriaren atzealdean azaltzen den Jacques Oyhenart ere, urte batzuk geroago, eskuizkribuaren jabe izan zen.<sup>34</sup>

Badu eskuizkribu honek aipatu nahiko genukeen beste gauza berezi bat ere. 11. orriaren atzealdeko 4. ahapalditik aurrerakoa eta 12. orria oso

<sup>31</sup> Urkizuren (2007, 416-464) transkripzioan ere 567 ahapaldi dira.

<sup>32</sup> Goian ikusi dugu Irigarayk bere kopian eta itzulpenean *Clovis* pastoralari dagokion pertsonaiak bakarrik kopiatu zituela.

<sup>33</sup> Horixe da, hain justu, eskuizkribuan zatia falta duen orri bakarra.

<sup>34</sup> Eskuizkribuak eskuz esku nola pasatzen ziren maiz aipatu izan da eta ziur aski azterketa egokia merezi duen gaia da. Goian aipatu dugun Fr. Michelen alearen istorioa ere antzekoa da, nahiz eta ale horrek ez duen jabeen izenen arrastorik gorde. Eskuizkribuen artean dauden kutsatzeak ere (batetik bestera kopiatutako zati osoak) errazago azaltzen dira horrela. *S*jen gure edizioan erakutsi genuen bezala, horrela baliatu zuen J. Oihenart pastoralgileak *S*/ pastoralara Savoiaiko Zelestinarena idaztean (ik. Loidi 2004, 13-15).

osorik, gainontzeko testutik ezberdina den letrakera batekin idatzia dago. Loidi 2004 lanean *SJ* pastorealean azaltzen diren esku edo letrakera ezberdinei buruz jardun genuenean ere, aipatu genuen ez dela erraza esaten beste esku bat den zati hori idatzi duena, ala, besterik gabe idaztaldi axolagabea goa edo narrasagoa den. *SJ* pastoralari dagokion zatian, guztira, letrakera nagusiaz gain, bost zati ezberdin bereizi genituen. Horietan guztietan C ize-nez izendatu genuenaren berdina iruditzen zaigu aipatzen ari garen zati honetakoa. Oro har eskuizkribu honetako testua oso irakurterraza bada ere, zati honetako letra da arazo gehien ematen duena; bereziak dira, esaterako, hitz hasieretako *e* larria eta zenbait *r*.<sup>35</sup>

Ale honi dagozkion kontuak oraingoz bukatzeko, testuaren osotasunari dagokion ohartxo bat egin nahiko genuke. Zalantzarik ez dago pastoral oso bat dela, hasi eta bukatu, eskuizkribu honek lehenengo 16 orrietan jasotzen duena. Hala ere, badirudi testu luzeago baten laburpen edo moldaketa izan litekeela. Testu hau, prestatu ere, *SJ* pastoralarekin batera, emanaldi berean emateko prestatu zen, eta, beraz, bigarren zati hori luzeegi gera ez zedin laburtua dirudi. Ez du gainera sataneriei dagokien zatirik ere. Goian Hérelleren deskripzioan ere ikusi dugu “Rédaction abrégée” aipatzen duela.<sup>36</sup> Dena den, aipatzen ari garen eskuizkribuek elkarrekin duten harremana aztertzen hasten garenean itzuliko gara kontu honetara.

Dr. Larrieu [B]. Cahier sans couverture; papier vergé, 175 sur 100mm. Complet. XVIII<sup>e</sup> siècle.

Eskuizkribu hau da, guk ezagutzen ditugunen artean, gaur egun ere bilduma pribatu batean gordetzen den *Clovis* pastoralaren ale bakarra. Orain arte ikusi dugun bezala, Hérelleren garaian bilduma pribatuetan ziren beste eskuizkribuetako batzuk gaur egun edonorentzat irekita dauden liburutegietan

<sup>35</sup> Gure transkripzioarekin gehiegi erkatu ez baldin badugu ere, iruditzen zaigu zati hori izan dela Urkizuri (2007) ere lan gehien eman diona; guk *socori* (‘sokorri’) eta *socoriçaliac* irakurtzen dugun lekuan, esaterako, *suri* eta *surizaliak* dakar 413 eta 417. ahapaldietan; eta, beste bakar bat aipatzeagatik, 435. ahapaldiaren gure irakurketa eta Urkizurena jarriko ditugu parez pare, gurea ezkerretara eta Urkizurena eskuinetara:

Hulent ady, fripoua,  
eta colpu houni gog[o]ua eman;  
ciek socori neçacie,  
Apolom eta Barلمان.

Huilen adi, fripua,  
eta kolpu surini (?) gogua eman,  
ziek sokorri nuzie  
Apolon eta Barلمان.

<sup>36</sup> Ik. BMBa 51ri dagokion atalean horri buruz ezarri dugun Hérelleren oharra.

dira. Eskuizkribua oso egoera onean dago, txukun koadernatua.<sup>37</sup> Guztira zutabe bakarrean idatzitako zenbakitu gabeko 168 orri dira. Testua ere oso txukun kopiatua dago eta didaskaliak kopiatzerakoan ere kontu handia izan dela ikusten da: pertsonaien lehenengo agerraldiak, adibidez, gurutze batez markaturik daude, aurrean zenbaki bat dutela, 1 eta 2 zenbakia daramaten Clovis eta Aurelianekin hasi eta 42. zenbakia daraman Arcadierekin buka. Testuko oharrek, gainera, G, D edo M letra larri bat dute alboan, oholtzara ateratzeko edo ezkutatzeko aldea adieraziz.<sup>38</sup> Tarteka, gainera, zenbait eszena jokatzeko arizaleek oholta gainean hartu beharreko lekua adierazten duten irudi antzekoak ditu. Aberatsa eta argia da, beraz, oholta gaineko mugimenduak eta abar adierazten.

Orrialde guztietan, zutabe bakoitzaren barrenean ahapaldien zenbaketa ematen da eta bukaeran guztira 1460 ahapaldi zenbatzen ditu (kenketa batean 1508ri ezabatutako 48 kendu ondoren lortzen den emaitza). Guk testu nagusian 1405 ahapaldi zenbatu ditugu; beraz, lehen peredikuko 80 eta azken peredikuko 21ekin batuta, guztira, 1506, marraz ezabatuta daudenak barne. Ahapaldien zenbaketaren ondoren dator kopiatzailearen izena: J.C. D'Etchebers.<sup>39</sup> Hurrengo orrialdearen hasieran, "Lun. 13 may 1799 ont joué cette piece par les citoyens et citoyennes cy bas nommes" pertsonaien zerrenda, parean paper bakoitza jokatuko duen aktorearen izena duela (guztira 25 arizale). Ez da oso ohikoa pertsonaien zerrendetan aktoreen izenak ematea, Hérellek ere aipatzen duenez,<sup>40</sup> guk geuk *Clovisen* zerrenda honetaz gain garai bertsukoa (1793koa) den *Edipa* pastoralekoa bakarrik ezagutzen dugu.<sup>41</sup> Are ez ohikoagoa da zerrendan ikusten den arizaleak gizonetzko eta emakumezkoak izatea, denak nahasi.<sup>42</sup> Kontu hori

<sup>37</sup> Goian aipatu dugunez Hérellek "cahier sans couverture" dioen arren, geroztik koadernatua dago.

<sup>38</sup> Badirudi G[anche], D[roite] eta M[ilieu] adierazteko ezarriak direla. Esaterako "Hermitte jalquy eta belharica"-ren ondoan *M* dago, "Aurelian eta Clovis jalquy"-ren ondoan *G*, "Molier eta Sigebert jalquy" *D*; bada, hala ere, Clovis-en ondoan azaltzen den *D*-rik ere.

<sup>39</sup> Fr. Michelek (Oihenart 1847, LXIX) *J.C. d'Etchebery* kopiatzen du.

<sup>40</sup> "Ces listes ne nous apprennent rien sur les acteurs eux-mêmes; car, en réalité, les noms qu'elles donnent ne sont pas ceux des acteurs, ce sont seulement ceux des personnages de la pièce" (Hérelle 1923, 41).

<sup>41</sup> Ik. Bilbao 1996, 252. Zerrendan pertsonaiak eta aktoreak ez datoz elkarren parean. Aktoreen zerrenda hasieran dago eta pertsonaiena, berriz, bukaeran.

<sup>42</sup> Goian ikusi dugunez, Fr. Michelek (*ib.* LXIX) zerrenda hori osorik kopiatu zuen. Hérellek ere (1910, 16-17) jasotzen du, Fr. Michelen zerrenda aipatuaz, nola Clotilda eta Florindaren rola jokatu zutenak bi emakume izan ziren eta gizonetzkoenak jokatu zituztenak, berriz, gizonak. Aipuan eskuizkribuan azaltzen diren iraultza garaiko "citoyenne" eta "citoyen" izendapenak erabiltzen ditu. Ik. Hérelle 1923, 35 ere.

ere nahiko arrotza da pastoraletan,<sup>43</sup> aro modernora arte emakume arropaz jantzitako gizonak egin izan baitituzte emakumezkoen paperak; badira, bestela, emakumeek bakarrik egindako lanak ere.<sup>44</sup>

Cl. D'Andurain [H]. Cahier sans couverture; papier quadrillé, 200 sur 150 mm.; 167 feuillets à une colonne. XIX<sup>e</sup> siècle.

Eskuizkribua gaur egun Baionako Erakustokiko Liburutegian, 29 zenbakiarekin gordetzen da. Clément D'Andurain idazle euskaltzalea hil zenean,<sup>45</sup> haren arrebak, Malartic-eko Bizkontesak, gorde zituen eskuizkribuak eta, ondoren, 1935ean Baionako Euskal Erakustokiari eman zizkion.

Kopia nork egina den ez dakigu, baina zerbaitegatik jarri dugu hau ere leku honetan. Argi eta garbi Larrieu medikuaren bildumako eskuizkribuaren kopia da ale hau, itxura guztien arabera XIX. mendearen azken aldekoa, nahiz eta dakarren data bakarra jatorrizko testutik kopiatua den: “J.C. d'Etchebers (représentée le 13 mai 1799)”. Kopia egin duenak hori ere zintzo-zintzo kopiatu du, gainerako xehetasun guztiak bezala. Goian didaskaliei buruz esan duguna eskuizkribu honetan ere berdin-berdin kopiatua dago eta jatorrizko alean marraturik dauden ahapaldiak hemen ere kopiatu eta marraz ezabatu dira. Kopiatzaileak, azkenengo orrialdean, ahapaldien zenbaketa osoa ematean, ez ditu marratutakoak zenbatu: “1460 vers, sans ceux qui sont rayés”. Guztira, zutabe bakarrean idatzitako eta zenbakitu gabeko 167 orri laukidun ditu; zenbakituta daudenak orri horiek multzoka osatzen dituzten 14 pleguak dira.

### **Eskuizkribuen arteko harremanak: bertsioak, aldaerak eta kopiak**

Gaur egun ezagutzen ditugun eskuizkribu guztien aurkezpena egin ondoren, beraz, horiek guztiek elkarren artean duten erlazioa argitzen saiatuko


<sup>43</sup> Agian, pastoral hau jokatu zen Frantziako Iraultzaren garaian bederen, arruntagoa izan zitekeen aktoreen artean gizonetzko eta emakumezkoek nahasi parte hartzea. Dirudienez, oso arrunta izan ez zena garai hartan, ez behintzat hasierako urteetan, erregeei buruzko pastoralak jokatzeko izan zen. Hérellek (1910, 11) dioenez iraultzaren hasierako urteetako etsaikeria politikoak goxatuz joan ziren eta 1798an *Godofredo Bouillongoa* eta hurrengo urtean *Clovis* jokatu ziren.

<sup>44</sup> Hona Hérellek (1923, 149) aipatzen dituenak: “Les seules pièces jouées par les filles dans les 18 représentations connues sont: *Hélène de Constantinople*, 9 fois; *Geneviève de Brabant*, 3 fois; *Sainte Engrâce*, 2 fois; *Sainte Marguerite*, 1 fois.”

<sup>45</sup> Gerla Handian, Verduneko bataila ezagunean hil zen, gazterik, Clément D'Andurain idazle zuberotarra. Euskaltzalea eta langile handia izan zen, Euskaltzaleen Biltzarreko kide zen eta *Üskaldunak Ibañetan* izeneko pasterala idatzi eta argitaratu zuen Justin de Menditterekin batera 1906an.



gara. Izan ere goian ale batzuen inguruan esan dugu beste zeinen kopia diren, baina bada hori baino gehiago ere. Ahalik eta argien emate aldera, goian aipatu ditugun guztiak eskema batean irudikatzetik hasiko gara:



Goiko irudian ikusten denez, beraz, *Clovis* pastoralaren hiru bertsio nagusi eta ezberdin daudela esan dezakegu. Hiru bertsio horiek V. eta VI. mendeen artean Frantziako lehenengo errege kristaua izan zen Clovisen historia kontatzen digute modu batera edo bestera, historia bera izanik, pasarte batzuetan antz gehiago eta besteetan gutxiago dutela. Guztietan kontatzen da Clovisek Clotildarekin ezkontzeko duen gogoia, konbertitzeko Clotildaren eskaria eta Clovisen hasierako ukoa. Guztietan San Remi Reimseko artzapezpikua da Clovis bataiatzen duena. Beherago ikusiko dugunez, mirari batzuk ere errepikatzen dira bertsio ezberdinetan.

Istoria beraren hiru bertsio direla esan dezakegu eta horietako bertsio bategi, ezagutzen ez dugun X eskuizkribuan jatorria duenak, bi aldaera nagusi eta aldaera horien hainbat kopia dituela. Goiko ataletan adierazi dugun bezala, Parisen gordetzen den L. Irigarayren kopiak (F) garbi esaten du BMBBo-ko (A) eskuizkribuari Stempfek egindako kopiaren (E) kopia dela, eta Cl. d'Andurainen

bildumako eskuizkribuak (H) ere ez du iruzkin handirik behar kontu horretan: hitzez hitz eta xehetasun guztietan Larrieuren bildumako (B) jatorrizkoarekin bat dator (ezabatutako ahapaldiak ere jatorrizkoan bezala marratuta daude). Ez gara, beraz, kontu horretan gehiago luzatuko, eta geratzen zaizkigun lau aleen arteko erlazioetan sakonduko dugu gehiago datozen lerroetan.

Eskeman jarri dugun bezala, bertsio beraren aldaera dira Bordeleko alea (A) eta Larrieu bildumakoa (B). Orain arte emandako datuekin nekez pentsa liteke A alea bestearen kopia denik, izan ere, ikusi dugun bezala, 1770ekoa da A eta 1799koa B. Kontrakoa, ordea, teoriarik ez da ezinezkoa, alegia, B izatea Aren kopia osatua eta luzatua (gogora 567 ahapaldi bakarririk dituela Ak, eta Bren testu nagusiak, berriz, 1405). Guk, ordea, uste dugu oso zaila dela aukera hori ere eta horixe azaltzen saiatuko gara. Ez da erraza testuak aurrez aurre eman gabe hori guztia azaltzea eta ez dugu lan honetan testuak sartzeko leku handirik, baina ahalik eta argien azaltzen saiatuko gara: A alean 567 ahapaldietan kontatzen denak 570 bat ahapaldi hartzen ditu Bn, baina bi zati horietan guztira 400 bat ahapaldi dira berdina. Alegia, berez laburragoa den eskuizkribuan pasarte batzuk bestean baino luzeago dira eta alderantziz. Guztira Bn ez dauden 168 ahapaldi daude An, eta An ez dauden 170 daude Bn. Trajeriaren hasiera, adibidez, adierazgarria da; bietan berdina den lehenengo ahapaldia Ako 11.a eta Bko 39.a dira:

- A 11 Aurelian, princessa haren berry  
 çucq behar deitaçu jakin  
 eta lehen beno lehen  
 deligenta eguin.
- B 39 Eta princessa haren berry  
 çuq behar deitaçu jaquin,  
 eta lehen beno lehen  
 deligentcia eguin.

Ahapaldi horren aurrekoa moldatzaile bakoitzak bere modura eman du; laburrago Akoa eta luzeago Bkoa. Oso argigarria da aipatuko dugun aurre-ragoko pasartearen: Clovis kristauaren eta Jule aleman paganoaren arteko elkarrizketan, A 443 eta B 457 dira berdina diren azken biak:

- A 443 Bena behar duq bestela  
 jouan beste horieky,  
 habororiq bicitcia  
 mundian eztuq merechy.

B 457 Bena behar duq bestela  
 jouan beste horiequy,  
 habororiq bicitcia  
 mundian eztuq merechy.

Ikusten denez, Clovisen mehatxuzko hitzak dira, eta mehatxu horren aurrean, hurrengo zortzi ahapaldietan Juleren konbertitzea eta bien adiskidantza dator An. Bn, berriz, oso bestelakoa da jarraipena; ahapaldi bakar batean konbertitzeari uko egiten dio Julek eta horrek bien arteko bataila eta Juleren heriotza ekarri du. Bigarren eskuizkribu horretan, satanen agerraldia dator jarraian, 461-473 ahapaldietan, eta atzera berriz A 452 eta B 474tik aurrerako pasarte berdina da eskuizkribu bietan. Ikusten denez, jatorrian testu bera izanik ere hainbat pasartetan bide ezberdinak hartu dituzte moldatzaile biek eta batzuetan istorioa bera ere aldatzen da. A eskuizkribuaren bukaera, Clovisen bataioaren ondoren dator, *Te Deuma* kantatu ondoren; hiru lis loreak ekarri ditu Gabriel aingeruak, eta, Frantziako errege guztien marka izango den lore hirukoitzak zer adierazten duen azalduta, Jainkoa goratuz bukatzen da trajeria. B eskuizkribuan ere pasarte hori nahiko antzekoa da, baina, bataiatu eta *Te Deuma* kantatu ondoren (kantua bera ere kopiatua dator, A eskuizkribuan ez bezala), Bulgifer eta Satanen bost ahapaldiko eten bat dago. Satanerriaren ondoren dator lis lorearen pasarte.

576. ahapalditik aurrera ia beste mila ahapaldi ditu B eskuizkribuak. Behean, beste eskuizkribuekin antzeko duena aipatzeko, ondo etorriko zaigunetz, hona, labur esanda, amaierara arte kontatzen duena: Clovis eta Alariq-en arteko gerrak; Clovisen eritasuna eta San Severinen miraria; Severinen ehorzketa; Clovisen heriotza eta hiletak;<sup>46</sup> Clotildaren eliza eraikitze ahalegina eta igel-tseroei ardoa emateko egindako miraria; Clotildaren heriotza semeen aurrean; hil ondoko mirariak, itsua eta elbarria sendatuz; Clotildaren hiletak;<sup>47</sup> tartetan eta bukaeran, zenbait sataneria (goian ere aipatu dugu Ak ez duela sataneriarik). Gainera dituen mila ahapaldi horiek ikusita bakarrik ere nekez egiten zaigu B Aren kopia dela pentsatzea. Beste guztia erabat berdina balitz ere, moldatzaileak berak sortuak beharko lukete gainerako horiek guztiak eta

---

<sup>46</sup> Eskuizkribu honi dagokion atalean aipatu dugu oholta gainera mugimendu eta antolaketen berri oso zehatza ematen duela; Clovisen heriotzaren ondoren, esaterako, horrelako irudikapen bat dator. 1223. ahapaldiaren ondoren, Clovisen gorpua irudikatuz lauki luze handi bat dago, haren aurrean San Remi (erdian), eta ezker-eskuin gainerako pertsonaia guztiak zerrendaturik daudela: Gabriel eta Raphael aingeruak aurrean alde banatara, Florinda eta Clotilda bigarren, alde banatara hauek ere, eta jarraian beste guztiak.

<sup>47</sup> Clovisenaren antzeko irudia dago Clotildarentzat 1390. ahapaldiaren ondoren.

ez dugu esango hori ezinezkoa denik, baina bai jatorrizkoa A ez den beste bategen behar duela izan. Goian esan dugun bezala argi dago A luzeagoa den eredu batetik kopiatu eta moldatua dela, besteak beste sataneriak ezabatuz. Ez zaigu iruditzen, beraz, Bren iturburu izan zitekeenik. Bientzat jatorrian beste bat pentsatzea, berriz, erabat zilegi iruditzen zaigu. Jatorrizko horretatik, esan bezala, 400 bat ahapaldi berdin gorde dituzte biek eta bakoitzak bere modura moldatu eta aldatu ditu beste batzuk.

Beste bi eskuizkribuetan kontatzen dena, istorio bera izanik ere, beste modu batera kontatua da. C eskuizkribua, A bezala, Clovisen bataioarekin bukatzen da eta, ordura arte, baditu beste bertsioekin bat datozen hainbat pasarte, ezberdin kontatuak badira ere: A eta Bn bezala, Clovisek Clotildarengana bere asmoen berri ematera bidaltzen duenean Aurelian, hau pobre jantzian joaten da beste pobre batzuekin nahasi; bertsio bietan Aurelianek muin ematen dio eskuan Clotildari eta horri esker lortzen du harekin hitz egitea. Clovis eta Clotildaren lehenengo haur jaio berriaren heriotzaren berri ere, Dn ez beste bertsio bietan ematen da eta Clovisek, artean konbertitu ez denak, Clotildaren fedeari botatzen dio errua. Clovisen bataioaren kontaktetan ere bertsio bi horietan (A, B eta C eskuizkribuetan) uso bat da bataiatzeko olio sakratua *fiola* edo *empola* batean dakarrena. C eskuizkribuan hasieratik berezien gertatzen direnak hainbat pertsonaiaren izenak dira: beste guztietan Clotilda dena Clotillis da Cn; Clovisen kontseilaria den Aurelian, berriz, Aurelianus da eskuizkribu honetan; Clotildari Clovisekin ezkontzeko baimena ematen diona, Gundebant osaba da A eta Bn, Agabondus osaba Cn eta Gothumar neba Dn.

D eskuizkribuan, berriz, badirudi Clovis konbertitzea eta Clotildarekin ezkontzea bigarren mailan geratzen dela<sup>48</sup> eta pisu handiagoa dutela batzuen eta besteen arteko gerrek eta Clotildaren eta Martinian hermitainaren mirariak. Clotildak, aingeruak ekarritako makilatxoaren laguntzarekin, iturritik igeltseroentzako ardoa isurtzea lortu du. Martinianek, berriz, baditu hiru mirari gutxienez: Anael aingeruaren bitartez kartzelalditik ihes egin du (uso bategen eman dio jaten han izan den artean ere), burua moztuta hil ondoren artzainari agertu eta hitz egin dio eta, artzainak Pariserraino eramanez ahal izan dezan, haren ardientzat harripetik ura ateratzea lortu du.

Bertsio ezberdinak direla esan dugu, baina oro har istorio bera kontatzen dutela denek; horregatik, ezberdin kontatu arren, hainbat pasadizotan bat egiten dute eskuizkribuek. Horrela gertatzen da C eta D eskuizkribuetan, gaixo-

<sup>48</sup> Clovis pertsonaia bera ere 364. ahapaldiaren aurretik ez da agertu ere egiten.

tasunak sendatzeko milaka haurren odoletan bainatzea erremediatzat aipatzen denean. Hogei mila haur dira D eskuizkribuan eta bertako pertsonaia diren Gundiochus eta Gothumarren gaitza sendatzeko erremedio bezala aipatzen da; C eskuizkribuan, berriz, hiru mila dira hil beharreko haurrak eta Konstantinoplako enperadorearen legena sendatzeko erremedio bezala proposatu zela kontatzen du San Remik. Goian aipatu dugun Clotildaren miraria ere B eta D eskuizkribuetan dator: bietan langileak haserre dira ardorik gabe lan egin behar dutelako eta Clotildak, iturritik batean (B) eta haitzetik bestean (D), ardoa ateratzea lortu du.

Ez dugu oraingoz lan hauen iturrien bila saio handiegirik egin<sup>49</sup> eta lan honetan, gainera, leku faltaz, ez dugu horretaz jardungo, baina ezberdintasunen jatorria erabilitako iturrietan izango da neurri batean; besteak beste, pertsonaien izenetan dagoen aldea ere hortik etor liteke. Goian, pertsonaia nagusien izenetan dagoen aldea bakarrik aipatu dugu, eta batez ere izen beraren aldaerak dira aipatutakoak, baina bigarren mailako pertsonaien izenak ere ezberdinak dira batzuetan bertsio batetik bestera.

Ikusitakoak ikusita, beraz, goian egin dugun stemmari eutsiko genioke guk eta ez guke Hérellek egiten duen moduan, C eskuizkribua bereziko. Bereiztekotan, badirudi Bussonen testua (D) dela ezberdinagoa, baina ikusi dugun bezala horrek ere istorio bera du oinarrian eta hainbat pasadizotan bat egiten du beste bertsioekin. Urkizuk (2007, 80-81) berriki egin duen bereizketa ere ez zaigu egokia iruditzen; bertan, gaizki ulertu ez badugu, Bordelekoa jartzen du alde batean (horren kopia diren Irigarayren bi kopiekin batera) eta beste biak (BMBa 20 eta Urkixorena) beste aldean (Larrieuren bildumakoa aipatu egiten badu ere, ez du horri buruzko iruzkinik egiten, eta Andurainena ez du aipatzen):

A [BMBBa 20] eta E [J. Urkixo] batetik eta B [Irigaray], C [Heguiaphal] eta D [BMBo 3]-k bestetik bi istorio ezberdin aurkezten dute, batek Klobisen bataiatzea eta kristautzea eta honen batailak infidelei besteak.

---

<sup>49</sup> Hérellek berak ere aipatzen duenez, G. Parisek argitaratutako *Les miracles de Nostre Dame*-n “Miracle de Clovis” atalean (VII. liburukia 194-277) kontatzen denak, eta batzuetan elkarrizketen itxurak berak ere bai, antz handia du A eta B eskuizkribuetako testuarekin, baina Clovisen bataioari dagokion pasartearekin bukatzen da hori ere, eta, esan dugunez, Bko testua askoz luzeagoa da. Gainera, C eskuizkribuaren iturria beste bat dela dirudien arren, badira han ere “Miracle de Clovis” deituarekin bat datozen xehetasunak: goian aipatu ditugun Aurelianekek Clotildari eskuan muin egitea eta olio sakratua uso batek ekartzea, esaterako. Iturrien azterketa zehatza ez da, beraz, kontu erraza.

Bukatzeke, eta eskuizkribuen arteko erlazioa ondo azaldua geratu delakoan, *Clovis* pastoralaren edizio egoki baten premiaren garrantzia aipatu nahiko genuke. Bat baino gehiago dira bertsio eta kopia ezberdinak dituzten XVIII eta XIX. mendeetako pastoralak<sup>50</sup> eta horietan guztietan euskal literaturako gainerako generoetan ez ohikoa den aberastasuna dagoela iruditzen zaigu. Gai beraren inguruan, eta askotan iturri bertsuak erabiliaz, idatzitako bertsio ezberdinak dira maiz, eta eskuizkribu zaharragoetatik egindako kopiak dira bestetan; testu kritikarako aberastasun handia, beraz. Horixe da *Clovis*-en kasuan ere gertatzen dena: hiru bertsio ezberdin jasotzen dituzten testuak ditugu alde batetik (X, C eta D) eta bertsio beraren aldaera direnak bestetik (A eta B maila batean eta horien kopia diren F eta H bestean). Aldaeretan ere, testu beraren bi kopia ezberdin aztertzeko aukera dugu batetik A eta Brekin; jatorrizkoa ezagutzen ez badugu ere bada lana bien arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak aztertzen. Bestetik, berriz, A nahiz B jatorrizko direla, horietatik egin diren kopietara dagoen jauzia ere aztergai dago. Oraingoz ikusi ahal izan dugunagatik, H kopia oso fidela da B jatorrizkoarekiko; baina F izendatu dugun kopiaren hizkuntza aldaerek A jatorrizkoa idatzi zenetik mende bat eta gehiago igaro izanaren arrastoa erakusten digute. Aztergai bikaina, beraz, XVIII. mendetik XIX.aren amaierara<sup>51</sup> (ia XX. mendekoa da F kopia) zubererak izan duen aldaketa ikusteko.

Aldaerak, ezberdintasunak eta literatura balioa aztertu ahal izateko, beraz, eskuizkribu guztien berri ematen duen edizio egoki bat egitea beharrezko iruditzen zaigu eta lan horretan jarraituko dugu.

### Aipatutako bibliografia

Badé, J., 1843, “Un échantillon du théâtre populaire des basques”, *L’observateur des Pyrénées*, urriak 12, 13, 15, 22, 27, 29, Paue.

Bilbao, G., 1996, “Jean Mekol Garindañekoaren *Edipa* pastoralara (1793)”, *ASJU* XXX-1, 239-332, Donostia.

---

<sup>50</sup> Eskuizkribu ugari dituzten beste pastoral batzuen izenburuak aipatzeko *Le patriarche Abraham, Roland, Hélène de Constantinople* edo *Mustapha le Grand Turc* izenda ditzakegu hemen.

<sup>51</sup> F kopiatik A jatorrizkora, urteen tarteaz gain, badirudi E izena eman diogun Stempfén kopia ere tarteko dela. Hizkuntzazko aldaerez gainera, pentsa liteke, beraz, irakurketa okerrek eragindako aldaerak ere bikoiztuak izan litezkeela.

- Buchon, J.A.C., 1839, "Représentation d'un mystère dans le Pays Basque", *Mémorial des Pyrénées*, urriak 31 eta azaroak 2, Pau.
- D'Andurain, Cl., 1906, *Uskaldunak Ibañetan. Trajeria hirur phartetan*. Baiona.
- Hérelle, G., 1910, "Pastorales basques pendant la Révolution" *RIEVIV*, 5-17.
- , 1923, *La représentation des Pastorales à Sujets Tragiques*, Baiona.
- , 1926, "Une pastorale de l'an 1500", *RIEVXVII*, 17-19.
- , 1928, *Répertoire du théâtre tragique. Catalogue analytique*, Baiona.
- Léon, A., 1909, *Une pastorale basque. Hélène de Constantinople. Étude historique et critique*, Paris.
- Loidi, A., 1996, "Santa Catherina pastoralaren XIX. mendeko bi eskuizkribu", *ASJUXXX-2*, 497-603, Donostia.
- , 2004, "Antiokiako San Julianen Pastoral (1770)", *ASJUXXXVIII-1* (2004), 1-133, Donostia.
- Fr. Michel, 1847, *Histoire des races maudites*. Bi liburuki.
- , 1857, *Le Pays Basque*.
- Oihenart, A., 1847, *Proverbes basques*. Fr. Michelen edizioa.
- Oyharçabal, B., 1991, *La pastorale souletine. Édition critique de Charlemagne*, *ASJU*-ren gehigarriak, XVI, Donostia.
- , 2004, "Place de Sainte Elisabeth de Portugal (1750) dans l'histoire des tragédies traditionnelles en langue basque", *Lapurdum IX*, 181-214.
- Saroihandy, J., 1927, *La pastorale de Roland*, Baiona.
- Segurola, K., 2002, "Jeanne D'Arc Pastoralaren Eskuizkribua: Le plus ancien connu?", *Lapurdum*, 7, 313-326.
- Urkizu, P., 1997, *Jundane Jakobe handiaren trageria*. Errenteriako Udala.
- , 2007, *Teatro popular vasco. Manuscritos inéditos del siglo XVIII. Estudio y edición*, UNED, Madrid.
- Vinson, J., 1883, *Le Folk-lore du Pays Basque*, Paris.
- , 1891, *Saint Julien d'Antioche, pastorale en langue basque publiée conformément à un manuscrit appartenant à la bibliothèque de la ville de Bordeaux*, Bordele.